



**Isabel Palomera Parra**

Madrilgo Complutense Unibertsitateko Artxiboaren zuzendaria (2015-2023)

Geografia eta Historian lizentziaduna. Erdi Aroko Historiako espezialitateko ikasketak egin zituen Madrilgo Complutense Unibertsitatean. Estatuko Administrazio Orokorreko Artxiboen Talde Teknikoko kidea da.

Lan-esperientzia: Kultura Ministerioko Artxibo Nagusia; Administrazioaren Artxibo Orokorra; Madrilgo Erkidegoko Artxibo Erregionala; Kultura Ministerioaren Estatu Artxiboen Zuzendariordetza; Artxibo Historiko Nazionala. Funts Garakideen Aila; Katastroko Zuzendaritza Nagusiaren Artxiboa; Madrilgo Complutense Unibertsitateko Artxiboaren zuzendari izan da 2015etik 2023ra.

Madrilgo Erkidegoko Artxiboen Kontseiluko kidea.

Egile edo egilekide gisa argitaratutako lanak:

- [\*El Archivo de MediaLab Madrid, una nueva experiencia para el Archivo de la Universidad Complutense de Madrid.\*](#) RUIDERAe aldizkaria, 21. zbk. Universidad de Castilla-La Mancha. 2023
- [\*Patrimonio fotográfico de la UCM. Un fondo de la Junta Constructora de la Ciudad Universitaria. Págs. 11-29. En Rumbos Atrevidos pero Necesarios. Conversaciones entre Innovación, Arte y Creatividad. Colección Diálogos Intelectuales del Siglo XXI.\*](#) Global Knowledge Academics komunitatea. Argitaratzailea: Rafael L. Cabrera Collazo, 2020.
- [\*Los Usuarios del Archivo Histórico de la Universidad Complutense de Madrid.\*](#) Investigación Bibliotecológica, 35. lib., 87. zbk., apirila/ekaina, 2021, Mexiko, 85-105. or.
- [\*Historia del Archivo de la Universidad Complutense de Madrid 1836-2006.\*](#) Madrid: Ediciones Complutense, 2019.
- [\*Sin archivos sin memoria.\*](#) Xàtivan egindako jardunaldiak. Instituto Alfonso el Magnánimo Centro Valenciano de Estudios e Investigación. 2017
- [\*Las guerras y la destrucción del patrimonio documental.\*](#) XXIV Jornadas FADOC UCM. (2015)

### **Artxibatzea sorkuntza artistikoa babesteko**

Artxibo-ereduan aldaketa sakonak gertatzen ari dira, iraultza teknologikoaren eta komunikazio-kanal berrien eraginez, eta erronka berriei erantzun beharra ekarriko du horrek. Artxibistikaren arloaren bilakaerari loturik, funtsezkoa da edukiak hedatzeari loturiko helburuak, metodoak eta xedeak zabaltzea, baliagarritasun- eta eraginkortasun-irizpideak aintzat hartzea eta oztupo fisikoak gainditzea.

Paradigma-aldaketa eragina izaten ari da, era berean, ezagutzaren eta ikerketaren prozesuetan eta tipologietan.

Gizartearen eskakizunekin bat etorrira, eztabaida semantikoak alde batera utzirik, eragile proaktibo gisa jardun behar dute artxiboek, eta beren gain hartu jarduera artistiko garaikideek sortutako dokumentazioa. Egiatuta dago artxiboetan nekez aurkitu ohi dela artelana sortzeko prozesuan sortutako ekoizpen dokumental jatorrizko eta heterogeneoa –gutun-trukeak, proiektuak, material grafikoa, ikus-entzunezkoa, etab.– biltzen duen dokumentu-funtsik. Paradoxikoki, material dokumental hori erreferentziazko baliabide bereziki baliagarria da arte garaikidea ikertzeko eta ezagutzeko.

Askotariko euskarrietan jasotako material horren konplexutasuna dela-eta, artxiboen praxiak aukera ematen du jarduera horri modu egituratu, normalizatu eta zorrotzean erantzuteko. Artxiboek ahalmena dute datuak eta berehalako informazioa sortzeko, jakintza sortu eta transmititzeko, sorkuntza artistikoari loturiko informazio-iturri primarioak babesteko eta, zabalkundearen bidez, komunitate zientifikoan balioan jartzen direla bermatzeko.

Testuinguru horretan, Complutense Unibertsitateko artxiboak Madrilgo MediaLab artxiboa gehitu die bere dokumentu-funtsei, aitortza nazionala eta nazioartera begirako proiektzioa kontuan harturik aparteko balioa duela iritzita.